



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urtarrilaren 14a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Proposamena bazter utzi da (3. or.).
- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Proposamena bazter utzi da (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, osasunaren arloko politika orokorrari buruzkoa, Nafarroan dauden etorkinei osasun arreta emateari dagokionez eta gure erkidegoko herritarren farmazia-estaldurari dagokionez. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak egin (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Gobernua premiatzen da larrialdikoa ez den osasun-garraioaren koordainketa ez dezan aplikatu. Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udaleko berdintasun agentearen figuraren finkapena bultzatze dezan eta Nafarroako udalentsako diru-laguntzen lerroei jarraipena eman diezaien. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontakizun-aldaketa batez arduratzeko konpromisoa har dezan, halako moduz non Nafarroako ikasleek beren historia ezagutu ahalko baitute 1512-1530 urteetan egiaz gertatu zena islatzen duten testu liburuen bitartez. Bildu Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat prestatzeko prozesuari ekin diezaion, Iratiko Oihana parke natural deklaratzekoa. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitateak bere partaidetza eta konpromisoa areagotu nahi dituela Pirinioetan Hartz Arrea lehengoratzeko Estrategian eta Programetan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak leungarririk gabe errefusatzeko baitu osasun-profesionalen lanaldia eta oinarritzko osasun-laguntzako, laguntza jarraituko eta larrialdiko laguntzako zentzuen ordutegia arautzen dituen dekretua. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren webgunean Osasun Departamentuaren itxaronzerrendak gaurkotzeari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (17. or.).
- Galdera, sare teknologikoaren eredu berri baten barruko negozio sektore berriari buruzkoa, Marisa de Simón Caballero andreak egina (18. or.).
- Galdera, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonentzako osasun arretari buruz Konstituzio Auzitegiak emaniko epaiaren ondoren Osasun kontseilariak eta Departamentuak daukaten jarrerari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (18. or.).
- Galdera, Lekarozko proiektuari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (19. or.).
- Galdera, turismo-elkarte eta -partzuergoentzako aurrekontu-laguntzari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Lege proiektu berrian fazeziek duten egoerari buruzkoa, Miren Aranoa Astigarraga andreak egina (21. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.

PROPOSAMENA BAZTER UTZI DA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27 eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2012ko abenduaren 14an egindako bileran, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamenaren inguruan emaniko irizpen negatiboa, Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez eta batzordeen irizpen negatiboei buruzko 2008ko maiatzaren 12ko Lehendakariaren erabakiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatu foru lege proposamena baztertu izanari dagokionez.

2. Agintzea aipaturiko irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Irizpen negatiboa

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2012ko abenduaren 14an egindako bileran onetsitakoa.

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamenari dagokionez, ezezkoa eman zaio inolako testu onesteari eta, beraz, aipatu Foru Lege proposamena bazter utzia gelditzen da.

Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.

PROPOSAMENA BAZTER UTZI DA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27 eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2012ko abenduaren 14an egindako bileran, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamenaren inguruan emaniko irizpen negatiboa, Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez eta batzordeen irizpen negatiboei

buruzko 2008ko maiatzaren 12ko Lehendakariaren erabakiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatu foru lege proposamena baztertu izanari dagokionez.

2. Agintzea aipaturiko irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Irizpen negatiboa

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2012ko abenduaren 14an egindako bileran onetsitakoa.

Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek aurkezturiko neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamenari dagokionez, ezezkoa eman zaio inolako testu onesteari eta, beraz, aipatu Foru Lege proposamena bazter utzia gelditzen da.

Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2012ko azaroaren 12ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2.

idatz-zatia aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko otsailaren 1eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri.

2. Foru lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri

Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrari buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru

Legeak 4. artikuluan ezartzen ditu Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsonen eskubideak. 11. artikuluan ezartzen duenez, "osasun-laguntza publikoak, estaldura unibertsalekoak, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen ditu. Halaber, Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere hartzen ditu, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera" osasun-laguntza publiko eta unibertsal hori orobat ziurtatzen zaie adingabeei eta haurdun dauden emakumei.

Foru lege horrek indargabetu egin zituen Nafarroako Foru Komunitatean onetsitako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak; besteak beste, eta Nafarroako herrietan bizi diren pertsoneri dago kienez, azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretua, zeinaren bidez ezarri baitziren Nafarroako Foru Komunitatean osasun-laguntza publikoa ororenganatzeke araubideko prestazioak eskuratzeko prozedura eta baldintzak.

Geroago, Osasun Sistema Nazionalaren iraungarritasuna ziurtatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurri buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretua onetsi da. Estatuko xedapen horrek "aseguratu" eta "onuradun" kontzeptuak ezartzen ditu, Espainian Osasun Sistema Nazionalaren bidez eta funts publikoen kargura osasun-laguntza jasotzeko irizpide subjektibo gisa; halatan, aseguratu edo onuradun izaera aitortu gabe dutenek hitzarmen berezi bat sinatetik heldu den kuota edo kontraprestazio bat ordaindu behar dute, osasun-laguntza publikoaren prestazioa lortu ahal izateko.

Errege lege dekretu horri men eginez, baina azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 4. eta 11. artikulua indardunetan xedatutakoa aintzat hartu gabe, Nafarroako Gobernuak urriaren 31ko 117/2012 Foru Dekretua onetsi du, aldatze aldera azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretua, zeinaren bidez ezarri baitziren Nafarroako Foru Komunitatean osasun-laguntza publiko ororenganatzeke araubideko prestazioak eskuratzeko prozedura eta baldintzak.

Foru dekretu berriarekin eta bertan jasotako aurreikuspenekin segurtasun gabezia juridikoa sortzen da, eta pertsona askori eragiten dio egoera horrek, bai Nafarroako administrazio-egoera dutenei, bai etorkinei. Aldi berean, foru dekretu batek ezarriko duenera atzeratu dira legearen

aplikazioa eta aurreikuspenak – arau-hierarkia eta legezotasun printzipioa aldatuta, hartara–, eta lehenetsun osoa eman nahi izan zaio, foru lege baten gainera, Estatuako arau bati, aintzat hartu gabe Nafarroako Parlamentuak azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen bidez eta horren aurreko foru legeen bidez erakutsitako borondatea, zeinen bidez aitortu baita Nafarroan bizi den orok eskubidea duela osasun-laguntza publikoa, unibertsal eta doakoa jasotzeko.

Bere foru araubidearekin bat, Nafarroak eskumen zabala du barne osasunaren arloan, eta Estatuak osasunaren arloan ematen dituen arauak osa ditzake, bere ekonomia- eta finantza-araubidea aplikatuz. Hori guztia jasota dago Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan.

Horrekin guztiarekin batera, Konstituzio Auzitegia argia izan da horri dagokionez, eta bere doktrinan onartu du autonomia erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen arabera, arauak eman ditzaketela osasunaren arloan, Estatuak bere oinarritzko araudiaren bidez guztiengana ezarritakoa bakoitzak bere lurralde eremuan hobetze aldera, Konstituzioaren eta beren estatutuen arabera arloan dituzten kudeaketa- nahiz finantzaketa-eskumenekin bat. .

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak behin eta berriro erakutsitako borondatea berriz ere jasotzen borondate hori jaso zen, aurrena, osasun sistema publikoaren osasun-laguntza Foru Komunitatean bizi diren etorkin guztiengana zabaldu zuen maiatzaren 25eko 2/2000 Foru Legean; hurrena, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean, zeinaren bidez nabarmen hobetu nahi baita Estatuaren osasun sistema publikoaren bidez guztiengana ezarritakoa, orain apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuan jasotakoa–, eta Nafarroan aldarrikatu, onartu eta ziurtatze aldera ezen Nafarroan bizi den orok eskubidea duela, zein ere den bere lege- nahiz administrazio-egoera, Nafarroako Foru Komunitatearen osasun sistema publikoan ematen den osasun-laguntza publikoa doan jasotzeko, haren funts publikoen kargura, foru lege hau onetsi beharra dago.

Bestalde, bermatu beharra dago Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko urriaren 19ko 18/2012 Foru Legean berriki ezarritako farmazia-prestazio osagarriak jasotzeko eskubidea foru legea indarrean sartzen denetik berehala eta zuzenean aplikatzeko eta baliagarria izanzen dela, eta, hortaz, osasun administrazioak nahitaez bete beharrekoa, direnak direla ere foru legea garatze aldera beharrezkoak diren erregelamendu-arauak.

Artikulu bakarra.

1. Nafarroan bizilekua duten pertsona fisiko guztiak dute eskubidea Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura doan jasotzeko Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistema publikoak emandako osasun-laguntza oinarritzkoa edo espezializatua, zein ere den haien adina, nazionalitatea edo lege- nahiz administrazio-egoera.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondorio- etarako, “bizilekua” izanzen da kreditatzea, zuzenbidean onartutako edozein modutan, erroldatzea barne, pertsona horren bizilekua Nafarroako udal batean dagoela, inolako denbora-eperik kontuan hartu gabe.

3. Bizilekua kreditatzen duen dokumentazioa aurkeztuta, osasun administrazioak doan eta luzamendutan ibili gabe emanen die identifikazio-dokumentazio bat 1. idatz-zatian aipatzen diren pertsonen, Nafarroan osasun-laguntza publikoa ororenganatzeko araubidean sartzeko, baldin eta Osasun Sistema Nazionaleko Norbanako Osasun Txartela ez badute.

4. Foru Komunitateko osasun sistema publikoak emandako osasun-laguntza, 1. idatz-zatian aipatutako pertsonen dagokienez, Osasun Sistema Nazionaleko Norbanako Osasun Txartela dutenei emandako bera izanzen da, eta Nafarroako Osasun Administrazioak ezin izanzen du inolako diskriminaziorik egin.

Xedapen gehigarria.

Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-pres-tazioak osatzeari buruzko urriaren 19ko 18/2012 Foru Legeko arauak indarrean sartzetik aitzina Osasun Departamentuak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean aplikatzekoak dira, direnak direla ere foru legea garatze aldera beharrezkoak diren erregelamendu-arauak. Horrenbestez, foru lege honetako 2. artikuluan aipatutako pertsonen eskubidea dute foru legea indarrean sartzen den egunetik bertatik farmazia-prestazio osagarriak berehala jasotzeko, foru legeko 5. artikuluan adierazten den moduan.

Xedapen indargabetzailea.

Espresuki indargabeturik gelditzen dira azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretua, zeinaren bidez ezarri baitziren Nafarroako Foru Komunitatean osasun-laguntza publikoa ororenganatzeko araubideko prestazioak eskuratzeko prozedura eta baldintzak, horren aldaketak eta hori garatzeko xedapenak, eta, halaber, foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra, eta ondorioak izanen ditu, betiere, 2012ko apirilaren 24tik aitzina.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, osasunaren arloko politika orokorrari buruzkoa, Nafarroan dauden etorkinei osasun arreta emateari dagokionez eta gure erkidegoko herritarren farmazia-estaldurari dagokionez.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, osasunaren arloko politika orokorrari buruzkoa, Nafarroan dauden etorkinei osasun arreta emateari dagokionez eta gure erkidegoko herritarren farmazia-estaldurari dagokionez.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Osasuneko kontseilari Marta Vera andrearentzako jabeldura hau aurkezten du, Eledunen Batzarrean eztabai-datu eta bozkatzeko.

Osasun arloko politika orokorrari buruzko jabeldura, Nafarroan etorkinei emandako osasun-laguntzari dagokionez eta gure erkidegoan herritarrei emandako farmazia-estaldurari dagokionez, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruko osasun-prestazioen araubideari buruz Konstituzio Auzitegiak emandako autoa ezagutu ondoren.

Zioen azalpena:

Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkuraren 2012ko abenduaren 13ko autoak aitortzen duenez, autonomia erkidegoek herritarren osasun-baldintzei buruzko araudiak hobetzen ahal dituzte, bakoitzak bere lurralde-esparruan.

Nafarroako Foru Komunitateak osasun arloko eskumenak dauzka Foru Eraentza Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren arabera, eta, hartara, herritarrentzako osasun-estaldura hedatzen ahal du.

Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta bete-beharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeak ondokoa ezartzen du 1. artikuluan: "osasun-laguntza publikoak, estaldura unibertsalekoak, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen ditu. Halaber, Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere hartzen ditu, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera."

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, berriz, lege bat onetsi zuen, medikamentuak eskuratzeari dagokionez 16/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritako osasun-prestazioak osatzeari buruz.

Hortaz, jakin nahi dugu ea Nafarroako Gobernuak zer arau ezarriko dituen etorkinen osasun-laguntza publikoa eta doakoa, zergen bidez finantzatua egiaz gauzatzeko, eta Nafarroako Parlamentuak onetsitako legean ezarritako baldintzetan eskura ditzaten herritarrek medikamentuak.

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Gobernua premiatzen da larrialdikoa ez den osasun-garraioaren koordainketa ez dezan aplikatu.

BILDU-NAFARROA ETA NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Gobernua premiatzen baita larrialdikoa ez den osasun-garraioaren koordainketa ez dezan aplikatu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Osasun Sistema Nazionalaren iraungarritasuna ziurtatzeko presako neurri buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretuak larriki urratzen ditu, gure ustez, herritarren eskubideak, eta autonomia erkidegoen eskumenak ere bai. Horregatik defendatu dugu konstituziokontarakotasun-errekurtso bat jartzea.

Gastu publikoa murrizteko neurrien artean dago Osasunbidearen zerbitzu zorroa berrantolatzeari, zorroa hiru modalitatetan zatituta: oinarrizkoa, gehigarria eta zerbitzu osagarriena. Sailkapen horretatik abiatuta, koordainketa sartzen edo birformulatzen du zenbait osasun-prestaziotan.

Zehazki, ekarpena edo ordainketa sartzen du zorro komun gehigarrian sartzen diren prestazio anbulatorioetarako, eta, betiere, farmazia-prestaziorako, ortoprotesia-prestaziorako, produktu dietetikoetarako eta larrialdikoa ez den osasun garraiorako.

Iragan ekainaren 1ean, dekretuak ezarritako koordainketa modalitate berri bat ezarri zen, herritarrak are gehiago kargatzen zituena. Neurri hori atzera botatze aldera, Nafarroako Foru Komunitatean

farmazia-prestazioak osatzeari buruzko Foru Lege proposamena onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak iragan urriaren 11n, zeinak bi hilabete geroago indarrean sartu gabe jarraitzen baitu, sistema berriro egokitzeko denbora gehiago behar delako, Osasun Departamentuak dioenez.

Gainontzeko koordainketak eta osasun-zerbitzuen zorroaren berrantolaketaren autonomia erkidegoekin oraindik adostu gabe daude Osasuneko Lurraldearteko Kontseiluan, baina iragan abenduaren 13an jakin genuen, hedabideen bidez, zein den larrialdikoa ez den osasun garraioaren koordainketari buruz Alderdi Popularraren Gobernuak egiten duen proposamena.

Antza denez, autonomia erkidegoei igorri zaien zirriborroaren arabera, erabilgaitzak 5 euro ordaindu beharko dute larrialdikoak ez diren tratamenduetarako bidaia bakoitzeko. Gaixo onkologikoei eta dialisia behar dutenei ere kobratuko zaie, hileko 10 eta 60 euro bitarte. Halatan, farmaziako koordainketako arauak jarraituz ezarriko da ordaindu beharreko zenbatekoa.

Gauzak horrela, farmaziako koordainketaren kasuan bezala, neurri honek, gure iritziz, desberdintasunak eragiten ditu populazioaren osasunean eta ekitatean, batez ere pentsiodunei dagokienez, zeinak, oro har, ekonomikoki kaltetuenak baitira, eta gaixo kronikoei dagokienez.

Kontuan hartu behar dugu, halaber, Nafarroan ez dagoela indarrean apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretuaren bidez ezarritako farmazia-koordainketa, eta badauzkagula eskumenak prestazio osagarri horiek osotara finantzatzen jarraitzeko. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten ditu apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretuaren bidez ezarritako osasun arloko koordainketa-mota oro, larriki urratzen dituztelako herritarren eskubideak nahiz Nafarroaren eskumenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan aplikatu, bere eskumenak baliatuz eta osasun-prestazioen ekitate aintzat hartuz, larrialdikoa ez den osasun garraioko koordainketa, eta horren doakotasuna ziurta dezan Nafarroako biztanle guzientzat.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehalako bete dezan

Legebiltzar honek iragan urriaren 11n onetsitako foru legea, zeinak farmazia-koordainketa birformulatzen baitu.

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udaleko berdintasun agentearen figuraren finkapena bultzatzea dezan eta Nafarroako udalantzako diru-laguntzen lerroei jarraipena eman diezaien.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita udaleko berdintasun agentearen figuraren finkapena bultzatzea dezan eta Nafarroako udalantzako diru-laguntzen lerroei jarraipena eman diezaien.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2012ko urriaren 30eko lan bileran, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren zuzendari kudeatzaileak bertako buru den aldetik dituen asmoei buruz informatu zuen, eta adierazi zuen babesa ematen jarraituko duela aukera-berdintasuneko alorrak dituzten udalei eta, hortaz, horien ardura duten berdintasun agentei.

Halere, halako arloak dituzten Nafarroako udal guztietako berdintasun teknikariek 2012ko abenduaren 13an egindako bileran jakinarazi zitzaizkien desagertu egingen dela beren lanpostuei eta eginkizunei zuzenean eragiten dien diru-laguntza.

“Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua” erakunde autonomoa benetan autonomoa izan zen bitartean eta Familiaren mende egon ez zen bitartean, diru-laguntzen lerro bat bultzatu zen udalek berdintasun agenteak kontratatze aldera (2006. urtea). Figura profesional hori sendotzea zen Berdintasunari buruzko 2006-2010 Foru Planaren ardatzetako bat. Halatan, diru-laguntzak lanpostuaren kostuaren % 75ekoak ziren kontratazioaren lehen eta bigarren urtean, eta % 60koak hirugarren eta laugarren urtean. Laugarren urtera iritsitakoan, egiaztatu zenean udalek ez zeukatela baliabide ekonomiko berekirik eta lanpostu horiek sendotzeko laguntza jasotzen jarraitu behar zutela, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzaile Sara Ibarrolak erabaki zuen, Maribel García Malo kontseilari zenean, % 60ko diru-laguntza ematen jarraitzea kontratazioaren bosgarren eta seigarren urteetan, udalek agente horien zerbitzua edukitzean jarraitu ahal izan zezaten. Urteetan zehar, antzeko neurriak hartu dira, gizarte langileak eta drogamenpekotasun arloko teknikariak kontratatuta baitira toki administrazioaren barruko lanpostuak sendotzeko. Izan ere, badira halako teknikariak kontratatzeko laguntzak duela 20 urte gora jasotzen dituzten izaera sozialeko lanpostuak, estrategikotzat jotzen direlako garatu beharreko gizarte politikan.

Une honetan, Institutuaren asmoa da % 40ra jaistea kontratazioaren bosgarren eta seigarren urteko diru-laguntza; berdintasun agentea egoera

horretan duten udalek, ordea, ezin diote aurre egin orain ordaindu nahi ez zaien % 20 horri. Eta are kezkarriagoa da jakitea diru-laguntza hori kenduko zaiela berdintasun agentea zazpigarren kontratazio urtean daukaten udalei, horrek berekin ekarriko baitu agente-andana kaleratu behar izatea, egoera horretan dauden udal gehienentzat ezinezkoa delako lanpostuaren kostu osoa beren gain hartzea.

Egoera are okerragoa da, baldin eta okerragoa izan badaiteke, kontuan hartzen baditugu profesional horiek beren udaletan eskaintzan ari diren zerbitzuak (jubilotekak, ludotekak, hezkidetzako programak, indarkeria sexistari aurrea hartzeko programak eta abar), horiek ere desagertu egingen direlako baldin eta udaletan ez badago programak nork kudeatu. Halaber, ez zaio batere etekinik ateratzen, edo etekin oso txikia ateratzen zaio, Nafarroako Administrazio Publikoen Institutuak profesional horiei eman dien 180 ordu baino gehiagoko prestakuntzari, zeinak gastu handia ekarri baitie funts publikoei; izan ere, Nafarroako Gobernu agente hauek iraitzearen aldeko apustua egiten ari da, eta ez horiek jarraitzearen aldekoa.

2013 honetan murrizketa gehiago egiteko asmoa dagoenez, deialdi bakar batera aurkezten ahalko direla adierazi zaie agenteei –bileran– eta herrietako alkateei –telefonoz–, eta berdintasun agentearen lanposturako diru-laguntza duenak ezin izanen duela lortu aukera berdintasuneko proiektuen gaineko bestelako diru-laguntzarik ere. Horrek esan nahi du bukatu direla gure erkidegoan aukera berdintasunerako politikak, eta beste auto-

nomia erkidego batzuekiko desabantailan gelditzen garena.

Egiaz aurreikusita dituzten murrizketek eta aurrekontuen aurreproiektuan jasota ageri direnek orobat kaltetzen dituzte Emakumearentzako Laguntza Juridikoaren Zerbitzuaz arduratzen diren abokatuak eta, Gizarte Laneko Departamentuaren Generoko Aritu ikasketei dagokienez, Nafarroako Unibertsitate Publikoa; izan ere, blokeatu egiten dira kontusail horiek, eta beste zenbait desagertu egiten dira; esate baterako, Nafarroako emakumeen elkarteei buruzkoak.

Horregatik guztiagatik, mozio hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du berdintasuneko udal agentearen figuraren sendotzea bultzatzea dezan eta jarraipena eman diezaien Nafarroako udalek orain arte balia zitzaketen bi diru-laguntza lerroei –aukera berdintasuneko agenteen kontratazioa eta berdintasunaren aldeko ekintzak–, profesional horien kontratazioaren seigarren urtea gainditzen duten udalentsako laguntza ekonomikoa bermatuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Emakumearentzako Laguntza Juridikoaren Zerbitzuarentzako diru-esleipenak mantentzian, Nafarroako Abokatuaren Elkargo Ofizialarekiko hitzarmen baten bidez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontakizun-aldaketa batez arduratzeko konpromisoa har dezan, halako moduz non Nafarroako ikasleek beren historia ezagutu ahalko baitute 1512-1530 urteetan egiaz gertatu zena islatzen duten testu liburuen bitartez.

BILDU NAFARROA ETA NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontakizun-aldaketa batez arduratzeko konpromisoa har dezan, halako moduz non Nafarroako ikasleek beren historia ezagutu ahalko baitute 1512-1530 urteetan egiaz gertatu zena islatzen duten testu liburuen bitartez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2012an bete da Nafarroarentzako funtsezkoa izan den prozesu historiko baten hasieraren V. mendeurrena; izan ere, orduan hasi baitzen Nafarroako Erresumak bere historian zehar pairatu behar izan zuen konkistetako azkena.

Hori dela-eta, alde batera utzita planteamendu sozial eta politikoak, gure ustez garrantzitsua da Nafarroako erakundeek zenbait xedapen historiografiko eta aldaketa sakon eta berritzaileak bultzatzea, gertakari haiek direla-eta egin ohi den kontakizunari dagokionez.

Azken hamar urteotan egin diren aurrerabide historiografikoek agerian utzi dituzte historiografia ofizialean gai horren inguruan nagusi izan diren engainuak eta gezurrak. Historiografia interesatu eta nabarmenki politikoa, baina azterketa historiko azalekoenari ere aurre egiteko gauza izan ez dena.

Halatan, konkistaren kontakizuna berrikusi beharra dago, prozesuaren inguruko kontakizuna aldatu beharra dago, eta, bereziki, bermatu beharra dago gure seme-alabek ikasteko gaur egun erabiltzen dituzten testu liburuek fidelki jasotzen dituztela 1512tik 1530era bitarteko gertakariak, behin betikoz baztertuta oraindik ere mantentzen diren engainuak, zirkulu hertsiki zientifikoetan jadanik zeharo gaindituta dauden falsukiak.

1516ko ekainaren 23an, bestalde, Juan Albretekoa hil zen Monein-en (Biarno), eta bere testamentuan agindu zuen bere gorpua Iruñeko katedralean erregeen artean lurperatzeko, bere arbasoen artean, eta hori bete ahal izan arte Leskarreko katedralean gera zedila gordailuan.

Nafarroako erregina Katalina Foixkoa, Juan Albretekoaren emaztea, 1517ko otsailaren 12an hil zen Mont-de-Marsango bere jauregian, eta hark ere agindu zuen bere gorpua Leskarreko katedralean gera zedila gordailuan bere senarrarenaren –erregearenaren– alboan, biak ala biak Iruñeko katedralera eramanez bitarte, Nafarroako erregeen artean, beren arbasoen artean, lurperatuak izateko.

Nafarroako erregearen eta erreginaren jatorrizko testamentuak Paueko Behe Pirinioetako Departamenduaren artxiboetan daude:

Nafarroako Erregina Katalinaren testamentua; 551 seriea, plegu-laurdeneko kaiera, 20 orri papezkoak, 2 zigilu (4. Tomoa, aurkibideetako 152. or.). Nafarroako Errege Juan Albretekoaren testamentua; E. 557 seriea, pergaminozko 4 piezako kartoia, 20 [pieza] paperean, zigilu 1 (4. Tomoa, aurkibideetako 154. or.).

2016an 500 urte beteko direnez Nafarroako azken erregea hil zenetik, uste dugu aukera zehatz eta erreal bat dugula, konkistaren aitzinean Nafarroaren azken defendatzaile izan zirenen oroimen historikoa berrezartzeko, eta protagonista haien berri emateko, haien herrikide nafar askorentzat ezezagunak dira-eta. Eta haien oroimena berrezartzeko modurik hobereana da haien borondatea betetzea eta, testamentuan xedatu zuten legez, haiek azkenean Iruñeko katedralean atsenden hartzea.

Hori dela-eta, Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeen ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontakizun-aldaketa batez arduratzeko konpromisoa har dezan, halako moduz non Nafarroako ikasleek beren historia ezagutu ahalko baitute 1512-1530 urteetan egiaz gertatu zena islatzen duten testu liburuen bitartez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko izapideak egin

ditzan, Juan Albretekoaren eta Katalina Foixkoaren gorpuzkiak –alegia, Nafarroako Juan III.aren eta Katalina I.aren gorpuzkiak– Leskarreko hobitiek ateratzeko eta, beren testamentuetan adierazitako borondatearekin bat, Iruñeko katedralera ekar daitezten eta beren arbaso Nafarroako antzinako erregeen panteoian hilobiratu daitezten, haien azken borondatea betez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Juan Carlos Longás García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat prestatzeko prozesuari ekin diezaion, Iratiko Oihana parke natural deklaratzekoa.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA ETA NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege proiektu bat prestatzeko prozesuari ekin diezaion, Iratiko Oihana parke natural deklaratzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Orain dela gutxi, Landa Garapen eta Ingurumen Batzordea bisitan joan zen Zaraitzuko Batzarrera, non bilera bat egin baitzuen ibarreko hautetsiekin.

Adierazi zigutenaren arabera, Iratiko Oihana natur parke deklaratzeko izanzen litzateke etorkizuko

neko apusturik garrantzitsuena, eta horretan dituzte jarrita beren itxaropenak. Ingurumen Departamentuarekin egiten ari diren lanaren berri eman ziguten, zeina oso aurreratuta baitago.

Batzordeko parlamentu-taldeei berriazko eskari gisa aurkeztu ziguten kasuko lege proiektua taxutzeko eskatuz Parlamentuko izapidetzeari ekitzea.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun taldeok ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lege proiektu bat taxutzeko proiektuari ekin diezaion, Zaraitzu Ibarreko Batzarrarekin lankidetzan, Iratiko Oihana natur parke deklaratzeko aldera. Proiektu hori soilik Zaraitzu Ibarreko muga geografikora mugatzen ahalko da, eta 5 hilabeteko epean aurkeztuko da gehienez ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du izan beharreko harremanak izan ditzan aldi berean, jakite aldera zein den Aezkoako Ibarreko Batzarraren jarrera, natur parkearen deklarazio hori Irati osora hedatze dago-kionez, bi entitate horiek sartzen direlako horren barruan.

Foru parlamentariak: Jerónimo Gómez Ortigosa, Maite Esporrín Las Heras, Víctor Rubio Martínez eta Txentxo Jiménez Hervás

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitateak bere partaidetza eta konpromisoa areagotu nahi dituela Pirinioetan Hartz Arrea lehengoratzeko Estrategian eta Programetan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroako Foru Komunitateak bere partaidetza eta konpromisoa areagotu nahi dituela Pirinioetan Hartz Arrea lehengoratzeko Estrategian eta Programetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Europako LIFE funtsen deialdiari erantzunez 2011ko irailean, Ingurumen Ministerioak (Biodibertsitatea Fundazioa), Hartz Arrea Fundazioak eta hartz arrearen presentzia duten Kantauriko nahiz Pirinioetako autonomia erkidego guztiek "Hartza" izeneko proiektu bat aurkeztu zuten, 14 milioi eurokoa.

. Iragan ekainean, Bruselak erabaki zuen proiektu hori ez onestea.

Harrezkero, Biodibertsitatea Fundazioa (Ingurumen Ministerioa) eta Hartz Arrea Fundazioa LIFE Hartza proiektu berri bat hasi ziren taxutzen, LIFE funtsen 2012ko deialdian aurkezteko, zeina irailaren 26an bukatu baitzen. Oraingoan, soilik Pirinioetako LIFE bat zen, Bruselak lehen baztertzea eragin zuten akatsak zuzenduta. Azken hila-

beteotan, Nafarroak, Aragoik eta Kataluniak "LIFE Hartza" berria taxutzen parte hartu dute.

Aurreko deialdiko LIFE haren kasuan bezala, LIFE honetan ere berrikuntzarik garrantzitsuena mantendu da: mendebaldeko hartz-gunea indartzea –bi ar bakarrik ditu–, hartz eme bat askatuta Nafarroan eta beste bat Aragoian, eta bi hartz ar askatuta Kataluniako Pirinioetan, erdialde-ekialdeko hartz-gunea genetikoki hobetzeko. Orain arte, ez da sekula baldintzapen bat izan Erronkariko Ibarrek bere babesa eman behar izatea hartz arrearen babesa dela-eta Nafarroako Gobernuak legez garatu beharreko jarduketei (hartz arrea espezie lehenetsia da Europako Batzordearentzat).

Halere, oraingoan, Foru Gobernuak azkenean erabaki du LIFE hori ez sinatzea, Erronkari Ibarreko Batzarrearen babes espresa ez izateagatik. Eta hori gertatzen da, paradoxikoki, Ibarreko Batzarrean inoiz ez bezalako jarrera dagoenean hartzaren etorkizunari buruz eztabaidatzeko eta akordioak lortzeko, eta hartza ibarreko turismo-ikono nabarmen bat denean. Emaizak ikusita, Ingurumen Departamentuak LIFE deialdi hau dela-eta egindako kudeaketa hobetu egin beharra dago, hobetu egin daiteke-eta.

Ez da ulergarria, are gutxiago krisi garaioan, Nafarroak eta Erronkariko Ibarrek uko egitea Europako LIFE Funtsetako 800.000 eurotik gora jasotzeari; izan ere, diru horrek lanpostuak sortuko zituen ibarrean, dauden beste batzuk mantentzen lagunduko zuen (Erronkariko Interpretazio Zentroa) eta hartz arrearekiko elkarbizitza hobetzeko aukera emanen zuen, espezie hori Europako natur ondarearen eta Pirinioen orainaren eta etorkizunaren parte baita. Hartza Erdiko Pirinioetan hedatzen ari den espeziea da: handik heldu da eta handik jarraituko du etortzen Nafarroara.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitateak bere partaidetza eta konpromisoa areagotu nahi dituela, Ingurumen Departamentuaren bidez, Pirinioetan Hartz Arrea lehengoratzeko Estrategian eta Programetan, Aragoiko eta Kataluniako autonomia erkidegoekin eta

Espainiako eta Frantziako Ingurumen ministerioekin koordinatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du hausnarketa eta elkarrizketa prozesu bat abiaraztea, Ingurumen Departamentuko arduradunen bidez, Erronkariko Ibarreko Batzearrearekin eta hartz arreak Nafarroan duen etorkizunarekin lotura zuzena duten sektore sozioekonomikoekin (batik bat, ardi-abeltzaintza eta turismoa), helburu izanen duena jarduketa programa bat adostea, LIFE funtsean 2013ko deialdira aurkezteko.

Erronkariko Ibarreko Batzarrearekiko eta ukitutako sektoreekiko hausnarketa eta elkarrizketa prozesu hori aurrera eramán ahal izan dadin eta prozesua praktikoa izan dadin, Ingurumen Departamentuari agintzen zaio bi hilabeteko gehieneko epean aurkez diezaíen batzorde honi eta Erronkariko Batzarreari 2013ko urtarriletik ekainera bitarte egin beharreko lan bileren eta ekimenen gaineko proposamen xehakatu bat, LIFE deialdia irailean bukatuko bide baita.

Proposamen horrek ondokoak jasoko ditu gutxienez ere: ibarreko sektore turistikoari eta hartzaren etorkizunari buruzko inkesta bat egitea (arrain-planaren esparruan departamentuak abeltzaintza sektorearekin egin duen bezala), eta 4 informazio-saio, bizikidetza-esperientziak trukatzekoak, arloko sektoreekin (abeltzaintza, turismoa, toki entitateak,

ehiza), zeinetan parte hartu beharko baitute hartz arrea duten eta LIFE funtsak jasotzen dituzten beste erkidego batzuetako sektoreen ordezkariak (Kantabriar mendikatea, Biarno, Kataluniako Pirinioak).

3. Nafarroako Parlamentuak Ingurumen Departamentua prematzen du sei hilabeteko epean aurkez diezaíon batzorde honi Nafarroan hartz arrea lehengoratzeko plana egokitzeko eta gaurkotzeko proposamena, aipatu estrategiaren eta programaren arabera, beharrezkoa den populazio-indartzea, estrategia eta programa horietan jasotzen dena, barne.

Nafarroan hartz arrea lehengoratzeko plana Pirinioetan hartz arrea lehengoratzeko strategiaren barruan sartu beharko da, eta abiapuntu eta erreferentzia izanen ditu Ingurumen Departamentuak LIFE 2011 deialdian –Bruselak ez zuen onetsi– eta LIFE 2012an –ez zen azkenean aurkeztu– aurkeztutako jarduketak eta aurrekontuak. LIFE 2013 deialdira aurkeztu beharreko jarduketak Ingurumen Ministerioarekin (Biodibertsitatea Fundazioa), Hartz Arrea Fundazioarekin eta Pirinioetako gainontzeko autonomia erkidegoekin koordinatuko dira, eta Aragoiko autonomia erkidegoak bazkide gisa parte hartzea bilatuko da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak leungarririk gabe errefusatzeko baitu osasun-profesionalen lanaldia eta oinarrizko osasun-laguntzako, laguntza jarraituko eta larrialdiko laguntzako zentroyen ordutegia arautzen dituen dekretua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak leungarririk gabe errefusatzeko du abenduaren 19an onetsitako dekretua, osasun-profesionalen lanaldia eta oinarrizko osasun-laguntzako, laguntza jarraituko eta larrialdiko laguntzako zentroyen ordutegia arautzen dituen; izan ere, dekretuak areagotu egiten ditu nafarren arteko desberdintasunak, osasun-laguntza jasotzeari dagokionez, eta bereziki diskriminatzen eta zigortzen ditu landa eremuak, urritu egiten du laguntzaren kalitatea eta atea irekitzen du zerbitzu gehiago pribatizatzeke; halaber, nabarmen okertzen ditu profesionalen lan baldintzak eta dozenaka lanpostu galtzea dakar.

2. Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena erakutsi nahi du Osasun Departamen-

tuaren –eta, horrenbestez, Nafarroako Gobernuaren– autoritarismo eta inposizio jarreraren aurrean; izan ere, Nafarroako Parlamentuaren borondate politikoaren aurka onetsi du dekretu hori, eta osasunaren arloko eragile sozialen, profesionalen eta sindikalen borondatearen aurka ere bai.

Nafarroako Parlamentuak Osasuneko kontseilari Marta Vera Janín andrea gaitzesten du, Nafarroako gehiengo sozial, politiko eta sindikala saihesteagatik eta erdeinatzeagatik eta osasun-erreforma irizpide ekonomiko hutsetan oinarrituta inposatzeagatik, ukitutako eragile profesionalen eta sindikalen egiazko parte-hartzerik gabe.”

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren webgunean Osasun Departamentuaren itxaronzerrendak gaurkotzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren webgunean Osasun Departamentuaren itxaronzerrendak gaurkotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamendu-

ak dioenari jarraiki, honako galdera helarazten dio Osasuneko Kontseilari Marta Vera Janín andeari, zehazten den Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan.

Iragan urriaren 23an, Kontseilari andereak Osasun Batzordean itxaronzerrenden inguruan egindako saioan, hainbat datu eman zituen, baina ez dugu horiek kontrastatzerik izan.

Izan ere, orain gutxira arte itxaronzerrendak hilabetero gaurkotzen ziren eta publikoki azaldu Nafarroako Gobernuaren webgunean, baina badira hilabete batzuk ez dela hala egiten. Honen harira,

Zer dela-eta ez dira ekainetik hona hainbat hilabetetan itxaronzerrendak publikoki gaurkotu?

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, sare teknologikoaren eredu berri baten barruko negozio sektore berriari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, sare teknologikoaren eredu berri baten barruko negozio sektore berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Evena erakunde autonomo gisa desagertu eta haren laborategiak Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiko Ardogintza Sustatzeko Atalari atxiki zitzaizkionetik, egunkariaren bitartez ezagutu dugu zein proposamen egin duen Nafarroako Gobernuak, Evenaren laborategia sare teknologikoko eredu berri baten barreneko negozio-sektore batean integratzekoa.

Zertan datza aipatutako negozio-sektore berri hori eta nola "integra" daiteke administrazioaren laborategi bat bi enpresa pribaturekin? "Integrazio" horrek, egiaz, esan nahi al du enpresa pribatu batek hartuko dituela administrazioaren laborategi baten funtzioak, eta laborategi hori desagertuko dela? Gauza jakina al da desagertze horrek berekin ekarriko lukeela ENACen ziurtagiriaren galera eta horrek eraginak izanen lituzkeela Nafarroako ardogintzaren sektorearen ofizialtasunean eta nazioarteko lege-aitorpenean?

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonentzako osasun arretari buruz Konstituzio Auzitegiak emaniko epaiaren ondoren Osasun kontseilariak eta Departamentuak daukaten jarrerari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonentzako osasun arretari buruz Konstituzio Auzitegiak emaniko epaiaren ondoren Osasun

kontseilariak eta Departamentuak daukaten jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilari Vera andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nolako jarrera izanen du kontseilariak, bai eta haren departamentuak ere, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen osasun arretari buruz Konstituzio Auzitegiak eman duen epaiaren ondoren?

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Lekarozko proiektuari buruzkoa.*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Lekarozko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak Lekarozko ikastetxea eta haren lurak erosi zituen 2007ko maiatzaren 2an, goi mailako kultura, hezkuntza eta ekonomia jardueren esparru bihurtzeko –Gobernuak berak emandako izendapenaren arabera–; esparruak, teoriarik, herri eta eskualde horretako bizi-baldintzak garatzen eta hobetzen lagundu beharko luke, egoera ekonomiko bereziki zaileko landa-eremu hori jarduera sustatzeko ekintza eraginkorren premian baitago.

Harrezkero, gauza jakina eta agerikoa da SPRIN-Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A.k kudeatutako zenbait jarduketa egin direla, zeinen emaitza izan baita, oraingoz, enpresa-campus bat sortu izana –CEIN, S.L. sozietate publikoak kudeatua– eta

hizkuntza-murgiltze zentro bat eraiki izana, eta litekeena da beste jarduketa eta erabaki batzuk ere hartu izana, nahiz eta horien berri ez daukagun eta Baztango herritarrek horiei buruzko xehetasunak ezagutu nahi dituzten.

– Lekarozko proiektuaren jarraipen batzordea –Nafarroako Gobernuak, Baztango Udalak eta Iksale Ohien Elkarteak osatua– 2010eko abenduaren 9an elkartu zen azken aldiz; duela bi urte, beraz. Zergatik ez da berriro bildu?

– Zein da, oro har, Lekarozko proiektuaren egungo egoera eta zertan da, zehazki, enpresa-campusen lurzatiak sozietateren bati besterentzeko prozesua?

– Egin al da bilerarik eta lortu al da akordiorik Baztango Udalarekin, arestian aipatutako jarraipen batzordeak horren berri izan gabe? Akordiorik lortu baldin bada, zein motatakoa izan da, eta zein baldintzatan lortu da?

– Zein da “Haitzuloa” izeneko espazioaren eta aldameneko eraikinaren proiektuaren egoera? Kasua bada, zer jarduketa eginen da bertan eta zein epetan eginen da?

– Zein da hizkuntza-murgiltze zentroaren egoera eta zein datatan aurreikusten da CIL Lekaroz enpresak –Sedenak eta Red Leaf-ek osatua–, zeinak erosteko aukerarekin alokatu baitzuen, zentroa zerbitzuan jartzea? Kasua baldin bada, hasi al da korritzen alokairu-epea? Zentro hori kudeatuko duen enpresak egin al du inolako ordainketarik?

– Jarraipen batzordea osatzen duten aldeetakoaren batek egin al die eskaerarik edo errekerimendurik Nafarroako Gobernuari edo SPRIN edo CEIN sozietateei, Lekarozko proiektuaren esparruan egun dauden monumentu-elementuetakoren bat desmuntatu, erretiratu edo/eta lekuz aldatzeko?

– Zer proiektu edo ekintza ari da egiten kultura, hezkuntza eta ekonomia jarduerak gehitzeko?

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, turismo-elkarte eta -partzuergoentzako aurrekontu-laguntzari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, turismo-elkarte eta -partzuergoentzako aurrekontu-laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera egin du, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzeko.

Turismo jarduera sustatu eta garatzearen esparruan, funtsezko bi eragile daude besteak beste, eta horrelaxe aitortua du Gobernuak berak: elkarrekin eta turismo partzuergoak.

Hona galdera: Uste al du Gobernuak bi eragile horiei iragan hurbilean eman zaien aurrekontu-babesa koherentea izan dela eman zaien garrantziarekin? Etorkizunean, zein politika jarraituko du Nafarroako Gobernuak arlo honetan?

Iruñean, 2012ko abenduaren 20an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Lege proiektu berrian fazeriek duten egoerari buruzkoa.

MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Lege proiektu berrian fazeriek duten egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Lege proiektua aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan. Nafarroako Gobernuak, hartara, laura murriztu nahi ditu tradiziozko batasunak.

Foru lege proiektu berri hau ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

1. Zein izanen litzateke Nafarroako fazerien egoera berria, foru lege proiektua onetsiko balitz?

2. Zein izanen litzateke nazioarteko aprobetxamenduko fazerien egoera, esate baterako Erronkariko Ibarak Baretous-ekoarekin duenarena edo Bera, Etxalar, Azkaine, Biriatu, Urruña eta Sarakoa?

3. Fazeriek aukera izanen al dute Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak lortzeko, administrazio publiko izateagatik orain arte egiten zuten bezala?

4. Zer administrazio prozedura baliatu beharko dute fazeriek, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak edo beste administrazio batzuenak lortu ahal izateko?

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

